

## **METODOLOGIA-FITXA**

### **UR-MASEN KALITATEAREN ESTADISTIKA (090214)**

#### **Identifikazioa**

##### **Eragiketaren izena.**

Ur-masen kalitatearen estatistika.

##### **Eragiketaren kodea.**

090214 (3/2014 Legea, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

##### **Erakunde arduraduna.**

Ingurumena eta Lurralde Politika Saila.

##### **Beste erakunde partaide batzuk.**

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

##### **Gai-arloa.**

Ingurumena.

##### **Maiztasuna.**

Urtekoa.

##### **Eragiketa-mota.**

Beste batzuk.

##### **Metodologia datuen jatorriari jarraiki.**

Uren kalitatearen jarraipen sarean datuak bilduz. Uren Euskal Agentziak kudeatutako uren kalitatearen jarraipen sareak edota Mugatze Hidrografiko bakoitzean eskumena duen erakundeak estazioetako informaziotik abiatuta lortutako datuak.

#### **Helburuak**

Ur-masen kalitatearen estatistikaren helburu nagusia EAEko planifikazio hidrologikoan zehaztutako ur-masen egoera ekologikoa aztertzea da, lurpeko urak eta akuiferoak barne.

#### **Aztertzeko aldagai nagusiak**

Ur-masen kalitatearen neurketan aztertutako aldagai nagusiak dira:

- Egoera biologikoa
- Egoera fisikokimikoa
- Egoera orokorra
- Ur-masa mota
- Ur-masaren maila

## **Eremua**

### **Populazio-eremua:**

Ur-masen kalitatearen estatistikaren populazio-eremua honako hau da: EAEko Ibaiak, Itsasbazterreko Urak, Trantsizioko eta Lurpeko Urak.

### **Lurralde-eremua:**

Eragiketa estatistiko honen eremu geografikoa Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremu administratiboa da.

### **Denbora-eremua:**

Ebaluatzeko aldia urte natural osoa da.

## **Galde-sortak**

## **Zabalkundea**

- [Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa](#)
- [Internet: Taula estatistikoak Eustat. www.eustat.es](http://www.eustat.es)